

*Cementos Lemoako langileek bi orduko lanuztea eta manifestazioa egin dituzte gaur, eta Lemoako herriak erantzun ona eman dio deialdiari, zenbait taberna eta denda itxi baitituzte. Protesta urriaren 31n lantegian lan-istripuz hildako langilearen heriotza salatzeko egin dute, eta bertan parte hartu du LABeko Negoziazio Kolektiboa eta Ekintza Sindikaleko idazkari Xabier Ugartemendiak. "50 langile baino gehiago hil dira aurten lan istripuz. Egoera tamalgarri hau patronalak eta botere politiko eta instituzionalek ezarri nahi diguten ereduaren ondorio da"; nabarmendu du.*

Patronalak eta botere politiko eta instituzionalek ezarritako ereduak prekaritatea dakar, baina, Xabier Ugartemendiak azpimarratutakoaren arabera, "pobreziaz gain, lan istripuak ere";. Hala, LABeko ordezkariaren hitzetan, "lan iistripuen arazoa ez da lan arazo huts bat, arazo sozial bat ere bada. Horregatik, gizarte osoaren aktibazioa behar dugu honi aurre egiteko";.



Ugartemendiak goraipatu ditu Lemoako herriak emandako erantzuna eta elkartasuna: "Patronalak zein administrazioan aldaketa eragiteko, gizartearen aktibazioa beharrezkoa dela argi du LABek";, berretsi du.

